

**1. Aurkezpena.** Urteroko ohiturari jarraituz "XI. Egiako Sudur Krosa. Bikote Kros Mistoak" antolatuko dugu 2020ko apirilaren 25ean, arratsaldeko 17:00etan.

Aurten, berrikuntza gisa, lasterketa bikotekakoa izango da. Parte-hartzaileek bikote mistoak osatu beharko dituzte parte hartu ahal izateko. Urtero legez, auzoko eta inguruetakoa saltoki txikien laguntzaz antolatu dugu lasterketa, umore onean arratsalde bikaina pasa eta Gladys Enea parkea atletismo herrikoia festa bilakatu dadin.

**2. Ibilbidea:** 6km. 3 kilometroko bi itzuli eman beharko zaizkio ohiko ibilbideari, Gladys Eneako atean hasi, Mikel Laboa Pasealekua eta Loiolako Erribera Pasealekua zeharkatu eta berriro Gladys Eneara itzuliz.

Bi hornidura postu izango ditugu lasterketaren amaieran. Bata likidoa eta bestea solidoa. Lehen itzulia amaitzerakoan ere ura edateko hornidura postua izango dute parte-hartzaileek.

Lasterketa girotzeko hasieran musika eta hizlaria izango ditugu.

**3. Denbora muga.** Helmugako kontrola proba hasi eta 50 minutura itxiko da. Proba bukatzeko hori baino denbora gehiago behar dutenak kontrolatik kanpo sartuko dira.

**4. Izen-emateak.** Aldez aurretik [www.herrikrosa.eus](http://www.herrikrosa.eus) webgunean izena ematen duten bikoteek 20€ ordainduko dituzte. Lasterketa egunean ere izena emateko aukera egongo da, hasiera baino ordubete lehenago, horretarako 25 € ordainduz.

Korrikalariak proba aurreko egunetan beraien izenak parte-hartzaileen artean azaltzen direla ziurtatu beharko dute. Ordainketa probaren aurreko egunetan egin beharko da. Korrikalariak ziurtatu beharko dute, halaber, zerrendan izenaren ondoan ordaindu izana ageri dela. Zerrendan ordaindu gabe daukala ageri bada, ordainketaren agiria aurkeztu beharko du lasterketaren egunean edo bestela egun horretako prezioa ordaindu beharko du.

**5. Aldagela eta duxak.** Duxak eta aldagelak Egiako Udal Kiroldegian, Martin Santos plazan, irteeratik 250 metrotara egongo dira. Martin Santos plazan sari banaketa, opari zozketa izango da eta luntxa korrikalari, laguntzaile eta bolondresi eskeinitako zaie..

**6. Dortsala.** Dortsala enbakia bularraldean jarri beharko da, ongi ikusteko moduan.

**7. Kirol-jokabidea** Antolatzaileek behar diren neurriak hartuko dituzte, lasterketan inolako gorabeherarik izan ez dadin. Horretarako, Udaltzaingoaren, Piratak boluntarioen eta SANITARIOAren laguntza izango dute

Parte-hartzaileek zintzo eta kirol legez jokatuko duten uste osoa dute antolatzaileek. Hala, korrikalariak proba oso-osorik beren kabuz egin beharko dute, kanpoko bultzada eta laguntzarik jaso gabe eta beste korrikalariak ez inbarazatu eta kalte egin gabe. Une oro, bikotea osatzen duten bi lagunek elkarrekin egin beharko dute lasterka.

Hori hala dela egiaztatzeko, eta kontrolatzeko, antolatzaileek laguntzaileak jarriko dituzte ibilbidean zehar, bikoteraren batek arauak betetzen ez dituztenean berri emango diete antolatzaileei, berauek dagozkien neurriak har ditzaten. Besteak beste, korrikalaria sailkapenean atzeratzeko eskubidea izango dute, baita probatik kanporatzekoa ere.

**8. Asegurua.** Antolatzaileek istripuetarako aseguru bat izango dute, lasterketako parte-hartzaileek min hartzen badute ere.

**9. Araudiaren onarpena.** Lasterketako parte-hartzaile guztiek, lasterketan izena emanda, onartu egiten dute araudi hau, eta lasterketan parte hartzeko sasoi egokian egon beharko dute.

**10. Sari banaketa.** 18:30ak aldera sari-banaketa egingo da Martin Santos Plazan (Plazahaundin). Lehen hiru bikoteek izango dute saria. Sari banaketa bukatzean auzoko eta inguruetakoko dendariak eskainitako produktu eta opariak zozketatuko dira.

Harremanetarako kontaktua: [sudurkrosa@gmail.com](mailto:sudurkrosa@gmail.com)

## **EGIAKO SUDUR TXIKI LASTERKETA**

Helduentzako lasterketarekin batera, aurten ere haurrei zuzenduta dagoen SUDUR TXIKI LASTERKETA antolatu dugu. Lasterketa arratsaldeko 16:00etan hasiko da, helduena baino ordu bete lehenago. Lasterketa hau, haurrak eta kirola lotzea du helburu nagusi bezala, beraz ez da sailkapenik egongo.

Parte hartzeko adina 0 urtetik 12 urtetarainokoa da. Haurren adinaren arabera, hainbat ibilbide antolatu ditugu, denak guztiz lauak. Luzeena 10 eta 12 haurrentzakoak izango da, 900 metro izango dituena.

Izen emateak aldez aurretik Egiako Tetuan tabernan (Kata bezala ezaguna) egin daitezke, 3 euroren truke. Lasterketa egunean ere aukera egongo da izena emateko 3 euroren truke.

Anima zaitzete zuen sema alabak Gladis Enea parkera ekartzen, iaz bezala primeran pasako dute! Jantzi zapatilak eta izerditu sudurtxoak!